



**HITZARMENA BILBOKO UDALAK
ARTHAZI ARTE GARAİKIDEA
SUSTATZEKO KULTUR ELKARTEARI
EMATEN DION DIRULAGUNTZA
IZENDUNA BIDERATZEKO**

**CONVENIO POR EL QUE SE CANALIZA LA
SUBVENCION NOMINATIVA QUE EL
AYUNTAMIENTO DE BILBAO CONCEDE A
ARTHAZI (ASOCIACIÓN CULTURAL PARA
LA PROMOCIÓN DEL ARTE
CONTEMPORÁNEO)**

BILDURIK

ALDE BATETIK, Gonzalo Olabarria Kultura eta Gobernantza Saileko zinegotzi ordezkaria, Bilboko Udalaren izenean, hura ordezkatzuz (Udalaren egoitza: Ernesto Erkoreka plaza, 1, 48007, Bilbo; eta IFZ: P-4802400-D).

BESTE ALDE BATETIK, Ignacio Alonso Gorostiza jauna (NAN: xxxxxx, ARTHAZI Arte Garaikidea Sustatzeko Kultur Elkartearen izenean, haren presidentea baita (ARTHAZI entitatearen egoitza: Mungia, Belako industria-poligonoa, 8. B, 1. nabea; IFZ: G-957272442).

AZALTZEN DUTE

ARTHAZI, ARTE GARAİKIDEA SUSTATZEKO KULTUR ELKARTEA, izenak dioen moduan, arte garaikidea sustatzen duen entitate bat dela.

Entitatearen lan eremua Bilboko Udalak bultzatu eta indartu nahi duen kultur sektore bat dela, eta programa propioen bidez nahiz sektore horrek berak gure udalerrian sustatzen dituen ekimenei lagunduz bultzatu eta indartu nahi duela, Kulturaren 2023-2033 Plan Estrategikoa ere betetzen dela kontuan hartuta.

Xede horiei begira aurreikusi duela entitateak aurten Bilboko urian ekitaldi bat antolatzea, "PAPER ARTE ETA GRABATUAREN NAZIOARTEKO JAIALDIA – 2026 FIG BILBAO" izenekoa, hitzarmen honi atxikitako proiektuaren eta aurrekontuaren arabera.

Udalaren borondatea dela jarduera hori sendotzea eta urian kalitatezko kultur eskaintza bat ematen laguntzea, eta hemen kulturaren sektore horretarako egiten den ekarpena uritik kanpo erakustea.

REUNIDOS

DE UNA PARTE, D. Gonzalo Olabarria Villota, Concejal Delegado del Área de Cultura y Gobernanza del Ayuntamiento de Bilbao, actuando en nombre y representación de este Ayuntamiento, que tiene su domicilio en Plaza Ernesto Erkoreka, nº 1, (48007 Bilbao) y NIF P-4802400-D.

DE OTRA PARTE, D. Ignacio Alonso Gorostiza con DNI xxxxxxxx, que lo hace en nombre de ARTHAZI, Asociación Cultural para la Promoción del Arte contemporáneo, de la que es Presidente, entidad con domicilio en Mungia, Pol. Industrial Belako, 8 B, nave 1 y NIF G-95727442.

EXPONEN

Que ARTHAZI, ASOCIACIÓN CULTURAL PARA LA PROMOCIÓN DEL ARTE CONTEMPORÁNEO, es una entidad que trata de promocionar el arte contemporáneo.

Que el ámbito de trabajo de la Asociación se desarrolla en un sector cultural que el Ayuntamiento de Bilbao quiere respaldar y potenciar, mediante programas propios, pero también apoyando las iniciativas sociales que impulsan este sector en nuestro Municipio, teniendo en cuenta también el cumplimiento del Plan Estratégico de Cultura 2023-2033.

Que para estos fines la entidad tiene previsto organizar este año en la villa de Bilbao el evento denominado "FESTIVAL INTERNACIONAL DE GRABADO Y ARTE SOBRE PAPEL - FIG BILBAO 2026", conforme al proyecto y presupuesto que se adjuntan al presente Convenio.

Que es voluntad del Ayuntamiento que esta actividad se consolide, de forma que contribuya a proporcionar una oferta cultural de calidad en la Villa, e incluso a mostrar fuera de ella la aportación de nuestra ciudad a este sector cultural.

Komeni dela horretarako esparru egoki bat edukitzea, ARTHAZI, arte garaikidea sustatzeko kultur elkartearen eta Udalaren artekoa, helburuak beteko direla eta jarduera behar bezala garatuko dela ziurtatzearen.

KLAUSULAK

BAT.- XEDEA.- Hitzarmen honen helburua da Bilboko Udalak ARTHAZI, arte garaikidea sustatzeko kultur elkarteari ematen dion dirulaguntza izenduna bideratzea, entitate horrek PAPER ARTE ETA GRABATUAREN NAZIOARTEKO JAIALDIA – 2026 FIG BILBAO” programa garatu dezan.

Entitate onuradunak, hala, programa horretarako proiektuaren eta aurrekontuaren arabera garatu beharko du diruz lagundutako jarduera. Agiri horiek elkarteak aurkeztu ditu, eta hitzarmenaren I. Eranskinean daude jasota.

Diruz lagundutako programaren gutxieneko aurrekontua, Eranskin horretan ageri den gisa, 224.500,00 eurokoa da.

Hitzarmen honetan aipatzen diren eranskinak hitzarmenaren atalak dira, eta, beraz, hitzarmenarekin batera sinatu behar dira.

BI.-UDALAREN EKARPENA.- Bilboko Udalak bere gain hartzen du BERROGEI MILA EURO (40.000,00 €) jartzea 2026 11010 33431 481990 partidaren kontura, elkartearentzako izendun dirulaguntza moduan, elkarteak programa hori garatu ahal izan dezan 2026ean zehar.

Dirulaguntza hori bateragarria izango da beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, baldin eta xede horretarako bererako badira, edozein dela ere ematen dituen administrazioa edo ente publiko edo pribatua, Estatukoa, Europar Batasunekoa nahiz nazioarteko organismoa. Hala ere, laguntzen zenbatekoa ezingo da izan handiagoa diruz lagunduko den jardueraren kostua baino, ez bera bakarrik, ez beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin batuta. Handiagoa bada, itzuli egin beharko da dagokion zatia. Xede bererako beste laguntza batzuk jaso baditu, onuradunak jakinarazi egin beharko du.

Que resulta conveniente disponer de un marco idóneo entre ARTHAZI, asociación cultural para la promoción del arte contemporáneo y el Ayuntamiento para que se pueda asegurar el cumplimiento de los fines y el desarrollo normal de su actividad.

CLÁUSULAS

PRIMERA.- OBJETO.- El objeto del presente Convenio es canalizar la subvención nominativa que el Ayuntamiento de Bilbao concede a ARTHAZI, asociación cultural para la promoción del arte contemporáneo para que la entidad pueda desarrollar el programa “FESTIVAL INTERNACIONAL DE GRABADO Y ARTE SOBRE PAPEL - FIG BILBAO 2026”.

La entidad beneficiaria deberá desarrollar la actividad subvencionada conforme al proyecto y el presupuesto para el referido programa. Estos documentos, presentados por la Asociación, figuran como Anexo I del Convenio.

El Presupuesto Mínimo del Programa subvencionado, tal como figura en el referido Anexo asciende a 224.500,00 €.

Los Anexos que se señalan en este Convenio forman parte de él, por lo que deberán firmarse junto a él.

SEGUNDA.- APORTACIÓN MUNICIPAL.- El Ayuntamiento de Bilbao se compromete a aportar la cantidad de CUARENTA MIL EUROS (40.000,00 €) con cargo a la partida 2026 11010 33431 4819900 como subvención nominativa a la Asociación para que ésta pueda desarrollar el programa citado en el punto anterior en el año 2026.

La referida aportación será compatible con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales. No obstante, el importe de las subvenciones en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada, en cuyo caso daría lugar al reintegro correspondiente. La beneficiaria deberá obligatoriamente comunicar la existencia de otras ayudas recibidas para la misma finalidad.

Hala, gogorarazten da arau-hauste penala izango dela, Zigor Kodearen 308. artikulua arabera:

1.- Administrazio publikoen dirulaguntzak edo laguntzak jasotzea 10.000 euro baino gehiagoko zenbatekoan, horretarako bete beharreko betebeharrak faltsutuz edo dirulaguntza jasotzea eragotziko luketenak ezkutatu.

2.- Administrazio publikoen funtsekin osorik edo zati batean ordaindutako jardun bat gauzatzean, funts horietatik 10.000€ euro baino gehiago erabiltzea bidegabeki, hau da, diru-laguntzek edo laguntzek izendatuta zuten xedeez bestelakoetarako.

HIRU.- DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN GASTUAK.-

Diruz lagun daitezkeen gastutzat joko dira diruz lagundutako jardueraren izaerarekin zalantzarik gabe bat datozenak, behar-beharrezkoak izanik eta hitzarmenean ezarritako epean egiten direlarik. Diruz lagundu daitezkeen gastuen eskuratze-kostua ezingo da izan inola ere merkatu-balioa baino handiagoa.

Diruz lagundu daitezkeen gastua Sektore Publikoko Kontratuen Legean kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak baino handiagoa denean, kontratatu aurretik, onuradunak hiru eskaintza eskatu beharko ditu, gutxienez, salbu eta ezaugarri bereziak direla-eta merkatuan ez badago holakorik egin, eskaini edo hornitu dezakeen entitate nahikorik edo gastua diru-laguntza eskatu aurretik egin bada. Aurkezten diren eskaintzak, berriz, efizientzia- eta ekonomia-irizpideen arabera hautatuko beharko dira, eta justifikazioan edo, hala badagokio, diru-laguntzaren eskaeran aurkeztu beharko dira; proposamen ekonomikoki abantailatsuena hautatzen ez bada, memoria batean justifikatu beharko da espresuki hautaketa hori.

LAU.- ORDAINKETA. Zenbatekoa, 40.000 €, hitzarmena formalizatu ondoren ordainduko da.

Ordainketa egiteko, onuradunari ez zaio eskatuko bermerik jartzea; gainera, alde aurretik ere egin ahal izango da ordainketa.

BOST.- AZPIKONTRATAZIOA.- Onuradunak aukera izango du jarduera osoa edo zati bat azpikontratatzeko.

Se recuerda que constituye infracción penal, según el artículo 308 del Código Penal:

1.- La obtención de subvenciones o ayudas de las Administraciones Públicas por importe superior a 10.000 euros falseando las condiciones requeridas para su concesión u ocultando las que hubiesen impedido.

2.- En el desarrollo de una actividad sufragada total o parcialmente con fondos de las Administraciones Públicas, la aplicación de los mismos, en una cantidad superior a 10.000 euros, a fines distintos de aquéllos para los que la subvención o ayuda fue concedida.

TERCERA.- GASTOS SUBVENCIONABLES.-

Se considerarán gastos subvencionables aquellos que de manera indubitada respondan a la naturaleza de la actividad subvencionada, resulten estrictamente necesarios y se realicen en el plazo establecido en el convenio. En ningún caso el coste de adquisición de los gastos subvencionables podrá ser superior al valor de mercado.

Cuando el importe del gasto subvencionable supere las cuantías establecidas en la Ley de Contratos del Sector Público para el contrato menor, la entidad beneficiaria deberá solicitar como mínimo tres ofertas de diferentes proveedores previamente a la contratación de los mismos, salvo que por sus especiales características no exista en el mercado suficiente número de entidades que los realicen, presten o suministren, o salvo que el gasto se hubiera realizado con anterioridad a la solicitud de la subvención. La elección entre las ofertas presentadas, que deberán aportarse en la justificación, o en su caso, en la solicitud de la subvención, se realizará conforme a criterios de eficiencia y economía, debiendo justificarse expresamente en una memoria la elección cuando no recaiga en la propuesta económica más ventajosa.

CUARTA.- ABONO.- El abono de la cantidad, 40.000€, se producirá tras la formalización del Convenio.

Para efectuar el abono, que podrá ser anticipado, no se exigirá a la entidad beneficiaria la constitución de una garantía.

QUINTA.- SUBCONTRATACIÓN.- El beneficiario podrá subcontratar, total o parcialmente, la actividad.

Hirugarren batekin hitzartutako jarduerak diru-laguntzaren zenbatekoaren % 20a baino gehiago direnean eta zenbateko hori 60.000 euro baino gehiago denean, entitate onuradunak kontratu idatzia sinatu beharko du hornitzaile horrekin; kontratu hori formalizatzeko, Udalak baimena eman beharko du alde zuzenetik.

Diruz lagundutako jarduera osoa edo zati bat gauzatzeko, ezingo da inolaz ere itunik egin Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 13. artikuluan adierazitako debekuetako baten barruan dauden pertsonekin edo entitateekin, ez eta diru-laguntzaren jasotzailearekin lotura duten pertsonekin edo entitateekin ere (Lege horretako Arautegiaren 68.2 artikuluan dago zehaztuta zeintzuk diren loturak), ez eta Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 29.7 artikuluan adierazitako gainerako pertsonekin ere.

Arthazi arte garaikidea sustatzeko kultur elkarteari baimena ematen zaio Iñaki Alonso Gorostiza, elkarteko lehendakaria, azpikontratatzeko, "Paper arte eta grabatuaren nazioarteko jaialdia – 2026 FIG BILBAO" zuzendari lanak egin ditzan. Azpikontratazio honek Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 29.7.d) artikuluan adierazitako baldintzak bete beharko ditu eta, hortaz, diruz lagundutako zenbatekoak ez du gaindituko lotutako entitateak izandako kostua eta kostua egiaztapenean ziurtatuko da, onuradunaren gastuak ziurtatzeko ezarritako baldintza beretan

SEI.- BESTE BETEBEHAR BATZUK.- Aurreko klausulan adierazitako betebeharraz gainera, aldeek beste hauek izango dituzte:

- a) Entitate onuradunak, hitzarmen honen bidez diruz laguntzen diren jardueren berri emateko egiten dituen publizitate- eta zabalkunde-ekintza guztietan, Bilboko Udalaren parte-hartzea adieraziko du, kasu bakoitzean egoki den erara, eta beti ere Udalaren logoa erabilita.
- b) Entitate onuradunak ziurtatu beharko du ezen, jarduera horiekin zerikusia duten prentsaurrekoetan, protokolo ekitaldietan, inaugurazioetan eta bestetan, Bilboko Udalaren ordezkariak (Kultura eta Gobernantza Saila) izango direla.
- c) Une bakoitzean euskeraren erabilera normalizatzeko indarrean dagoen araudia beteko dela bermatuko da.

Cuando las actividades concertadas con un tercero excedan del 20% del importe de la subvención y dicho importe sea superior a 60.000€, la entidad beneficiaria deberá suscribir un contrato por escrito con ese proveedor, cuya formalización precisará la autorización previa del Ayuntamiento.

En ningún caso podrá concertarse la ejecución total o parcial de las actividades subvencionadas con personas o entidades incursas en alguna de las prohibiciones del art. 13 de la Ley General de Subvenciones, ni con personas o entidades vinculadas con el beneficiario (considerándose que existe vinculación en los casos recogidos en el art. 68.2 del Reglamento de dicha Ley), ni con las demás personas previstas en el artículo 29.7 de la Ley General de Subvenciones.

Se autoriza a Arthazi asociación cultural para la promoción del arte contemporáneo a subcontratar a Iñaki Alonso Gorostiza, Presidente de la Asociación, para llevar a cabo las labores de director del festival "Grabado y arte sobre papel – 2026 FIG BILBAO". Esta subcontratación, estará sujeta a las condiciones exigidas en el art. 29-7º d) de la Ley General de Subvenciones, de manera que, el importe subvencionable no excederá del coste incurrido por la entidad vinculada y la acreditación del coste se realizará en la justificación en los mismos términos establecidos para la acreditación de los gastos del beneficiario de la subvención

SIXTA.- OTRAS OBLIGACIONES.- Además de la obligación señalada en la cláusula anterior, se atenderá a lo siguiente:

- a) En los actos de publicidad y difusión de las actividades subvencionadas que son objeto del presente convenio por la entidad beneficiaria se indicará la participación del Ayuntamiento de Bilbao en la forma adecuada a aquella, con la inclusión en todo caso del logo municipal.
- b) Por la entidad beneficiaria se asegurará la presencia de los representantes del Ayuntamiento de Bilbao (Área de Cultura y Gobernanza) en las ruedas de prensa, actos protocolarios, inauguraciones,... que tengan relación con las citadas actividades.
- c) Se garantizará el cumplimiento de la normativa sobre normalización del uso del euskera vigente en cada momento.

d) Diruz lagundutako programaren barruan antolatzen diren jardueretan udalaren ordezkariak sartzen utziko zaie.

ZAZPI.- KOORDINAZIOA ETA INFORMAZIOA.-

Kultura eta Gobernantza Sailak eta ARTHAZI Arte Garaikidea Sustatzeko Kultur Elkartek ahaleginak egingo dituzte beren programazioak koordinatzeko antolatzen dituzten kultur jardueretan, eta antolatzen dituzten kultur jardueren gaineko informazioa emango diote bata besteari.

ARTHAZI arte garaikidea sustatzeko kultur elkartek informazioa eta datuak bidaliko dizkio Kultura eta Hezkuntza Sailari, hark diruz lagundutako programaren oihartzuna ebaluatu ahal izan dezan; horretarako, jardueraren memorian, emaitzen adierazleak, prentsa-txostenak eta abar jakinaraziko dizkio Sailari.

Adierazleak datu hauek erakutsiko dituzte, gutxienez:

Zenbat jende izan den jardura ikusten.

ZORTZI.- JUSTIFIKAZIO KONTUA.- ARTHAZI, arte garaikidea sustatzeko kultur elkartek, beraz, hitzarmen honen bidez diruz lagundutako jardueren justifikazio-kontua aurkeztu beharko du 2027ko apirilaren 30a baino lehen.

Agiri hauek osatuko dute justifikazio-kontua:

- a) Jardueren memoria bat, diru-laguntza ematean ezarritako baldintzak bete direla justifikatzen duena, egin diren jarduerak eta lortu diren emaitzak zehaztuz.
- b) Diruz lagundutako programaren gastuen eta diru-sarreraren balantze bat, II. Eranskinean ezarritako ereduaren arabera.
- c) Jardueraren gastuen zerrenda sailkatua. Gastu bakoitzerako hauek zehaztuko dira: hartzekodunaren izena, dokumentuaren zenbakia, zenbatekoa, dokumentuaren data eta, egoki denean, ordainketaren data, III. Eranskinean ezarritako ereduaren arabera.
- d) Jatorrizko fakturak edo frogabalioparekoa duten agiriak, hitzarmen honetako bederatzigarren klausulan ezartzen den moduan.
- e) Diruz lagundutako zabalkunde-materiala, Bilboko Udalaren logotipoarekin.
- f) Diruz lagun daitekeen kontzeptu baten zenbatekoa handiagoa bada Sektore

d) Se facilitará el acceso de representantes municipales a las actividades organizadas dentro del programa subvencionado.

SÉPTIMA.- COORDINACIÓN E INFORMACIÓN.-

El Área de Cultura y Gobernanza y ARTHAZI, Asociación Cultural para la Promoción del Arte Contemporáneo, intentarán coordinar sus programaciones en las actividades culturales que organicen, facilitando información sobre sus respectivas actividades culturales.

ARTHAZI, asociación cultural para la promoción del arte se compromete a remitir al Área de Cultura y Gobernanza las informaciones y datos para evaluar la repercusión del programa subvencionado, mediante la aportación en la memoria de la actividad de indicadores de resultados, dossiers de prensa,...

Los indicadores mostrarán, al menos, los siguientes datos:

Número de personas asistentes a la actividad.

OCTAVA.- CUENTA JUSTIFICATIVA.-

ARTHAZI, asociación cultural para la promoción del arte contemporáneo, deberá presentar antes del 30 de abril de 2027 la cuenta justificativa de las actividades subvencionadas en el presente convenio.

La cuenta justificativa contendrá la siguiente información:

- a) Una memoria de actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos.
- b) Un balance de gastos e ingresos del programa subvencionado, conforme al modelo establecido en el Anexo II.
- c) Una relación clasificada de los gastos de la actividad, con identificación del acreedor y del documento, su importe, fecha de emisión y, en su caso, fecha de pago, conforme al modelo establecido en el Anexo III.
- d) Las facturas originales o documentos de valor probatorio equivalente tal como se establece en la cláusula novena de este Convenio.
- e) Material de difusión del programa subvencionado en el que figure el logotipo del Ayuntamiento de Bilbao.
- f) Los tres presupuestos que deben haberse solicitado cuando el importe de un concepto subvencionable supere las cuantías establecidas en la Ley de

Publikoko Kontratuen Legean kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak baino, eskatu behar diren hiru aurrekontuak eta egindako aukeraren justifikazioa, proposamen ekonomikoki abantailatsuen aukeratu ez denean.

- g) Erabili gabeko dirurik geratu bada, soberakin horiek eta horien interesak itzultzeko ordainketa-gutuna.

Diru-laguntza justifikatzeko, entitate onuradunak II. eta III. Eranskinak paperean eta euskarri digitalean aurkeztuko ditu.

Bilboko Udalak ordainagiriak eta trafiko juridiko merkataritzazkoan froga-balio parekoa duten agiriak edo administrazio eraginkortasuna dutenak egiaztatuko ditu, eta, hala balegokio, bere esku izango du ordainketa egiaztatzeko agiriak exijitzea.

Gastuen zerrendan gastu guztiak adieraziko dira eta entitate onuradunak jatorrizko fakturak edo merkataritzako trafiko juridikoan froga-balio parekoa duten agiriak edo administrazio eraginkortasuna dutenak aurkeztu beharko ditu. Agiri horiek lehen klausulan programa betetzeko ezarritako gutxieneko aurrekontua osatu beharko dute.

BEDERATZI. GASTUEN JUSTIFIKAZIOA.- Entitate onuradunak, bestalde, jatorrizko agiriak aurkeztuko ditu programa egikaritzeko epearen barruan egindako gastuak egiaztatzeko, honako hauek bereiziz:

- a) Programa egikaritzeko kostuak (zuzeneko kostuak).

Kostu horiek oso-osorik justifikatu beharko dira, fakturen bidez eta froga-balio parekoa duten gainerako ziurtagirien bidez.

Gastuak justifikatzeko agirietan, datu hauek sartuko dira, nahitaez:

- b) Pertsona onuradunaren identifikazioa.
c) Gastuaren xedearen deskripzioa; xede horrek zuzeneko lotura izan beharko du programaren egikaritzearekin.

Era berean, justifikazioaren euskarri diren dokumentuak justifikatzen den programari buruzkoa baizik ez dira izango.

Salbuespen modura, enpresa-buruak edo profesionalak ez diren pertsonak noiz edo noiz

Contratos del Sector Público para el contrato menor, así como la justificación de la elección efectuada, cuando no recaiga en la propuesta económica más ventajosa.

- g) En su caso, carta de pago de reintegro en el supuesto de remanentes no aplicados así como de los intereses derivados de los mismos.

Para justificar la subvención la entidad beneficiaria entregará los Anexos II y III tanto en papel como en soporte digital.

El Ayuntamiento de Bilbao comprobará las facturas o documentos de valor probatorio equivalente en el tráfico jurídico mercantil o con eficacia administrativa y, en su caso, podrá exigir la documentación acreditativa del pago.

La relación de los gastos incluirá la totalidad de los mismos, debiéndose aportar por la entidad beneficiaria facturas originales o documentos de valor probatorio equivalente en el tráfico jurídico mercantil o con eficacia administrativa que alcancen el presupuesto mínimo de ejecución del programa que se establece en la cláusula primera.

NOVENA.- JUSTIFICACIÓN DE GASTOS.- La entidad beneficiaria aportará la documentación original justificativa que acredite los gastos efectuados dentro del plazo previsto para la ejecución del programa, distinguiéndose, a estos efectos:

- a) Los costes directamente relacionados con la ejecución del programa (costes directos).

Estos costes deberán quedar justificados en su totalidad, mediante facturas y demás documentos de valor probatorio equivalente.

Los documentos que soporten la justificación de gastos incluirán, en todo caso, los siguientes datos:

- b) La identificación de la persona beneficiaria.
c) La descripción del objeto del gasto, que deberá estar directamente relacionado con la ejecución del programa.

Asimismo, los documentos que soporten la justificación se circunscribirán únicamente al programa que justifican.

Con carácter excepcional, en supuestos de actividades llevadas a cabo ocasionalmente por personas que no ostenten la condición de empresarias o

egindako jardueretan, onartzekoa izango da adostutako ordainsariaren zenbatekoa erakusten duen hartze-agiria aurkeztea, jasotzailearen identifikazio-agiriarekin batera (NAN, AIZ edo pasaporte). Ordainsaria 200 euro baino handiagoa denean, derrigorrezkoa izango da jasotzailearen banketxe-kontuan ordainketa egin izanaren ziurtagiria aurkeztea.

Langile-gastuak, berriz, nominak eta Gizarte Segurantzako kotizazioak aurkeztuz egiaztatuko dira.

d) Zeharkako kostuak:

Kostu hauek diruz lagundutako jarduerari eratzikiko dizkio, arrazoizko neurrian, pertsona edo entitate onuradunak, normalean onartzen diren kontabilitate arloko printzipio eta arauekin bat etorrira eta, betiere, kostu horiek jarduera gauzatzen den aldikoak badira. Eratzikitzen den zenbatekoa, baina, ez da inoiz izango diruz lagundutako programaren zuzeneko kostuen % 10 baino handiagoa.

Justifikazioa egiteko, zeharkako kostuetan onartuko den ehunekoa eta dirulaguntza jasotzeko baliatzen den aurrekontuan entitateak aitortutakoa berdinak izango dira, eta ehuneko hori aplikatuko zaio egiaz justifikatutako gastu zuzenekoiei.

Zeharkako kostuen kasuan, beren beregi eskatu ezean, ez da ezelako ziurtagiririk aurkeztu beharko.

HAMAR. PROGRAMAN ALDAKETAK EGITEA.- Programan funtsezko aldaketak egin ahal izateko, Bilboko Udalari eskatu behar zaio alde zuzenetik eta idatziz, eta Udalak beren beregi baimendu beharko ditu.

Programan aldaketa funtsezkoak egiteko eskabideak arrazoitu egin beharko dira, eta zehaztu beharko da zer ondorio eragingo dituzten aurrekontuetan eta kronograman. Gobernu Batzordeak dagokion Saileko ordezkariaren gain uzten du aldaketa horiek baimentzeko eskumena.

Horri dagokionez, honako hauek jotzen dira funtsezko aldaketatzat:

a) Helburu orokor eta berezietan aldaketak egitea.

profesionales, se podrá admitir la presentación de documentos en los que figure el recibí del importe de la prestación convenida, junto con copia del documento identificativo (DNI, NIE o pasaporte) de la persona perceptora, a los que se acompañará necesariamente, cuando su importe sea superior a 200 €, el documento acreditativo de la realización del abono en la cuenta bancaria de la persona perceptora.

Los gastos de personal se acreditarán mediante la presentación de las nóminas y cotizaciones a la seguridad social.

d) Los costes indirectos.

Estos costes habrán de imputarse por la persona o entidad beneficiaria a la actividad subvencionada en la parte que razonablemente corresponda de acuerdo con principios y normas de contabilidad generalmente admitidas y, en todo caso, en la medida en que tales costes correspondan al periodo en que efectivamente se realiza la actividad, sin que, en ningún caso, la imputación llevada a cabo pueda resultar superior al 10 por ciento de los costes directos del programa subvencionado.

A efectos de justificación, el porcentaje admitido de costes indirectos será el mismo que el declarado por la entidad en el presupuesto que sirve de base para la concesión de la subvención, y se aplicará sobre los gastos directos efectivamente justificados.

Para los costes indirectos, salvo requerimiento expreso, no se exigirá justificación documental alguna.

DÉCIMA.- MODIFICACIÓN DEL PROGRAMA.- Cualquier modificación sustancial del programa habrá de ser solicitada con carácter previo a su realización por escrito al Ayuntamiento de Bilbao, quien deberá expresamente autorizarla.

Las solicitudes de modificación sustancial han de ser motivadas, especificando las repercusiones presupuestarias y del cronograma que implican. La Junta de Gobierno delega en la delegación del Área correspondiente la autorización de estas modificaciones.

A tal efecto se consideran modificaciones sustanciales las siguientes:

- a) Cambios en los objetivos generales y/o específicos.
- b) Variaciones superiores al 20% en los importes de las partidas del presupuesto aprobadas (las variaciones presupuestarias entre partidas no podrán afectar a los

- b) Onartutako aurrekontuko partidetan %20tik gorako bariozioak (partiden arteko aurrekontu-bariozioek ez dute eraginik izango zeharkako kostuetan), programaren guztirako aurrekontua gutxitzen ez badute.

Aldaketak programaren aurrekontua gutxitzea badakar, Gobernu Batzordeak onetsi beharko du.

Diru-laguntzaren izaera eta helburuak funtsean aldatzen ez dituzten gainerako aldaketak justifikazioaren unean onetsi ahal izango dira, betiere hirugarrenen eskubideak kaltetzen ez badira.

HAMAIIKA. SUNTSIARAZTEA.- Hitzarmena suntsiarazteko kausa izango dira:

- a) Elkarrekin ez betetzea hitzarmen honetan ezarritako nahitaezko betebeharrak.
- b) Ez betetzea Arthazi Arte Garaikidea Sustatzeko Kultur Elkarrekin jarduerak arautzen dituzten zuzenbide publikoko arauak.

HAMABI.- DIRULAGUNTZA ITZULTZEA.- Entitate onuradunak diru-laguntzaren zati bat edo kopuru osoa itzuli beharko du Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean aurreikusitako kasuetan.

HAMAHIRU.- GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUAK.- Erakunde onuradunak, diruz lagundutako programa gauzatzean, NBEk onartutako eta 2023-2033 Kultura Plan Estrategikoan jasotako Garapen Jasangarrirako Helburuetan aurreikusitako jasangarritasun ekonomikoaren, baliabide materialen eta ingurumenaren ikuspegia kontuan hartzeko konpromisoa hartzen du.

HAMALAU.- ARAUDIA ETA JURISDIKZIOA.- Hitzarmena, lehen-lehenik, hitzarmenean bertan jasotako klausulek arautzen dute, eta baita 40/2015 Legearen 47. artikulua eta hurrengoek ere (40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa); halaber, Estatuko eta autonomia erkidegoko beste xedapen batzuk ere, hitzarmenak arautzen dituztenak, tokiko administrazioaren eremuan aplikatzekoak badira.

Hitzarmen hau sinatzen duten alderdiek administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren pean ezartzen dute beren burua, hura baita jurisdikzio eskuduna, 29/1998 Legearen 29. artikulua arabera

costes indirectos), que no impliquen minoración del presupuesto total del programa.

Si la modificación implica una minoración del presupuesto del programa, deberá aprobarse por la Junta de Gobierno.

Cualquier otra modificación que no altere esencialmente la naturaleza u objetivos de la subvención podrá ser aceptada en el momento de la justificación, siempre y cuando tal aceptación no suponga dañar derechos de terceros.

UNDÉCIMA.- RESOLUCIÓN.- Constituyen causa de resolución del convenio:

- a) El incumplimiento por la Asociación de las obligaciones establecidas con carácter preceptivo en el presente convenio.
- b) El incumplimiento de las obligaciones establecidas en las normas de derecho público que regulan las actividades de Arthazi, Asociación Cultural para la Promoción del Arte Contemporáneo.

DUODÉCIMA.- REINTEGRO DE LA SUBVENCIÓN.- La entidad beneficiaria estará obligada a reintegrar total o parcialmente la subvención en los supuestos previstos en la Ley 38/2003, de 17 noviembre, General de Subvenciones.

DECIMOTERCERA.- OBJETIVOS DE DESARROLLO SOSTENIBLE.- La entidad beneficiaria se compromete a que, en la ejecución del programa subvencionado tendrá presente la perspectiva de sostenibilidad económica, de recursos materiales y ambiental prevista en los objetivos de Desarrollo Sostenible aprobados por la ONU y contemplados en el Plan Estratégico de Cultura 2023-2033.

DECIMOCUARTA. - NORMATIVA Y FUERO.- El convenio se regirá en primer lugar por las cláusulas contenidas en el mismo y además por el art. 47 y ss. de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, y por cualesquiera otras disposiciones estatales o autonómicas reguladoras de los convenios aplicables al ámbito local.

La jurisdicción competente a la que se someten las partes firmantes de este convenio es la Contencioso-Administrativa, a tenor del art. 29 de la ley 29/1998, de 13 de julio, de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.



(29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari buruzkoa).

Ados daudela agertzeko, hitzarmen hau sinatzen dute aldeek, bi aletan, Bilbon, 2026eko XXXXXX.

ARTHAZI, Asociación cultural para la promoción del arte contemporáneo

Y en prueba de conformidad, las partes intervinientes firman el presente Convenio, por duplicado, en Bilbao, a XXXXXXX de 2026.

AYUNTAMIENTO DE BILBAO/ BILBOKO UDALA
ÁREA DE CULTURA Y GOBERNANZA/KULTURA ETA GOBERNANTZA SAILA

Sinatua/Firmado:
Don Ignacio Alonso Gorostiza.

Sinatua/Firmado:
Don Gonzalo Olabarría Villota